

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 16/2018 FORU DEKRETUA, otsailaren 27koa. Honen bidez, batetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzen Erregelamendua aldatzen da, Foru Administrazioak emaniko diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena; eta, bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida onartzen da.

ZIOEN AZALPENEA

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Gernikako Batzar Etxeko batzar-aretoan 2017ko urriaren 18an balio osoz egin zen bileran, adostu zuten Podemos Bizkaia taldeak aurkeztutako interpelazioaren ondoriozko mozioa onartzea, bai eta Eusko Abertzaleak eta Sozialistas Vascos taldeekin batera aurkeztutako erdibideko zuzenketa-eskea sartzeko ere. Zuzenketa-eske hori diru-laguntzen oinarri arautzaileetan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeari buruzkoa da. Hau da testua, hitzez hitz:

«Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten deutesie Foru Aldundiari foru administrazioak emoten dituan diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen dauen Foru Araua egokitu daiala Batzar Nagusien Osokoak gizarte klausulei buruz hartu eban akordioaren erespide eta artezbide osagarrietara.

Erespide horreek sail bakoetak joakon dekretuaren bitartez garatuko ditu eta onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak edo helburu publiko jakin bat lortzeagaz loturik egongo dira.

Diru-laguntzen gaur egungo esparru juridikoaren eguneraketeak indarrean egon beharko dau 2018ko lehen hiruhilekorako».

Klausula Sozialak diru-laguntza publikoetan aspektu sozialak sartzeko aukera ematen duten tresnak dira. Foru Administrazioaren jarduera ekonomikoak eragin esanguratsua du merkatuan eta enpleguan. Hori dela-eta, kohesio sozialaren alde egin daiteke tresna horiek erabilita, hainbat arlotan eragiten baitute, besteak beste, honako hauetan: desgaitasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, bidezko merkataritza, ingurumena, enpleguaren kalitatea, edo gizarteratzea eta laneratzea. Gainera, indartu egiten ditu aukera-berdintasunerako gainerako politikak.

Diru-laguntza publikoak sustapeneko jarduerak dira, eta onura publikoko edo interes sozialeko jarduerak edo helburu publiko jakin bat lortzearekin loturik daude. Deialdietako oinarri arautzaileetan eta deialdietan erantzukizun sozialeko klausulak sartuta, diru-laguntzak politika publikoak garatzeko tresna bihurtu daitezke.

Diru-laguntzak ematerakoan erantzukizun sozialeko klausulak sartzeak aukera ematen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetan ezartzeko, bai eta Foru Administrazioan eta haren gobernu-ekintzan irizpide sozialak, ingurumenekoak eta etikoak sartzeko ere.

Diru-laguntzen arloan arau hauek aplikatu behar dira: maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onesten duen Diru-laguntzen Erregelamendua, Foru Administrazioak emaniko diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena.



Foru Administrazioak erreferente izan behar du arlo horretan, diru-laguntzen bitartez baliabide publiko asko erabiltzen baitira, eta baliabide horiek eragin positiboak izan baititzakete pertsona edo kolektibo ahulenetan ere. Horretarako, aurre egin behar zaie zailtasunei, besteak beste, egun indarrean dagoen araudiak eskaintzen dituen aukerak ez ezagutzeari.

Arrazoi horregatik prestatu da «Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzetarako prozeduran klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko gida». Izan ere, araudia modu sistematikoan egituratzeko aukera emango duen tresna bat jarri nahi da diru-laguntzak emateko ardura dutenen eskura; adibidez, batez ere diru-laguntzak izapidetzeko prozeduraren faseetan sartu daitezkeen erantzukizun sozialeko klausulak bilduko dituen, benetako adibideak eta gomendioak jasota. Klausulen zerrenda hori ez da itxia izango.

Dokumentu horretan, hainbat formula aztertzen dira diru-laguntza publikoen oinarri arautzaileetan eta deialdietan genero-irizpideak, klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko, eta horiek aplikatzeko proposamenak egiten dira klausuletan.

Hala ere, gidaren helburua ez da hainbeste diru-laguntza zehatz baterako baliatzea, jarduketa orokor eta irekia izan nahi du. Arlo guztietako diru-laguntzetan aplikatu nahi da: lankidetzak, gazteria, berrikuntza, mugikortasuna, enplegua, osasuna, kultura, hezkuntza, migrazioa, nekazaritza eta abeltzaintza, sariak eta bekak, hirigintza eta mugikortasuna, prestakuntza, kirola, etab.

— Genero-ikuspegiari dagokionez, helburua da diru-laguntza publikoak arautzen dituzten arau espezifikoek egitura-aldaketak sortzea, berdintasunaren arloan efizientzia aurrera egiteko. Ildo horretan, sistematikoki jarduteko eredu bat proposatzen da:

- Foru sailek ematen dituzten diru-laguntza publikoetan genero-ikuspegia zeharka sartzeko duena.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako aspektuak jasotzen dituenak: besteak beste, hizkuntza ez sexista, onuradun kopuru paritarioa, sexuaren arabera bereizitako datuak, kontziliaziorako neurriak, eta emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, eta beharrezkoak azterketa.
- Egokitutako metodologia bat proposatzen duena, honako hauek konbinatuta: ebaluazio-irizpideak; nahitaezko baldintzak; jarduteko gomendioak; diru-laguntzaren xedean edo edukian genero-ikuspegia integratzea; aurrekontua sexuaren arabera banatzea; bai eta diru-laguntzak ebatzen dituzten organoek -emakumeen ordezkariak handia dutenek- emakume eta gizon kopuru paritarioa izatea ere.

— Klausula sozialen, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuen kasuan, lortu nahi da diru-laguntza publikoak arautzen dituzten arau espezifikoek zenbait jarraibide betetzea sustatzea; eta, jarraibide horiei esker, gizartea bidezkoagoa eta errespetu handiagoa izango da, eta bizikidetzarako ingurune osasungarri eta iraunkoragoa sortuko da. Horretarako, sistematikoki jarduteko eredu bat proposatzen da, besteak beste, helburu hauetarako:

- Mota guztietako desberdintasunak ezabatzen laguntzen duten edukiak jasotzeko.
- Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua baldintza duinetan sustatzeko.
- Ingurumenaren aldeko praktikak egitera behartzeko, edo praktika horiek saritu edo sustatzeko.

Beraz, goian azalduetakoa kontuan hartuta, gaur egun ezin da zalantzan jarri diru-laguntzen oinarri arautzaile eta deialdietan klausula sozialak (zentzu zabalean) sartzeko aukera. Hala ere, klausula horiek sartzeko modua arautzen duen arautegi berezian zehaztutako mugak kontuan hartuta sartu behar dira klausulok, eta, horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiak egokitzat eta beharrezkotzat jo du gida bat egitea, aukera ematen diena diru-laguntza publikoaren arloko eragileei klausula horiek behar bezala eta legean ezarritakoa erabat beteta txertatzeko diru-laguntzak izapidetzeko prozeduran.



Horrenbestez, aipatutako legerian xedatutakoa betetzeko eta, batetik, Foru Administrazio honen diru-laguntzen kudeaketa hobetzeko –administrazioan bere politika publikoen eraginkortasuna areagotzeko sinergiak sartuz– eta, bestetik, gobernu-jardunean erabateko gardentasuna lortzeko, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak emandako ahalmenak erabilita, proposamen hau aurkezten zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari, onar dezan

FORU DEKRETUA

Lehenengo artikulua

Diru-laguntzen Erregelamenduaren 45. artikulua aldatzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onesten duena. (Erregelamendu horren bidez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen da), eta 3. zerbakia sartzeari, honela idatzita:

3. Diru-laguntzetarako oinarri arautzaileetan eta deialdietan, izapidetzeko prozeduraren edozein fasetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako gaiak baloratu eta sustatzeko xedea duten irizpide edo aspektu bat edo gehiago jaso behar dira. Besteak beste, jarrera sozialei, ingurumena hobetzeari edo beste politika publiko batzuei buruzkoak izan behar dira irizpide edo aspektu horiek, betiere, diru-laguntzaren xedearekin bat badatoz eta ez badira beraiek diru-laguntzaren xede. Edozein kasutan, honako hauek hartu behar dira kontuan:
 - a) Irizpide horiek aukera eman behar dute Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedatzen den diru-laguntzen kudeaketa arautzen duten publikotasunaren, gardentasunaren, lehiakortasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko.
 - b) Era berean, irizpide horiek zehazki adieraziko dira, onuradun guztiek baldintza berberetan izan dezaten kontuan hartuko diren alderdien berri, eta modu homogeenan interpreta ditzaten diru-laguntzen adjudikazio-irizpidea eta irizpide hori ebaluatzeko modua (objektiboa izan behar da).
 - c) Irizpide horiek diru-laguntzak emateko fasean sartzen badira, ponderazio bat eman behar zaie oinarri arautzaileetan.
 - d) Diru-laguntza ematen duen organoak erabaki dezake, salbuespenez, diru-laguntzaren ezaugarriak ez direla egokiak diru-laguntzetarako prozeduratan irizpide hauek sartzeko: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna baloratu eta sustatzeko xedea dutenak, eta jarrera sozialei, ingurumena hobetzeari edo beste politika publiko batzuei buruzkoak. Horrelakoetan, justifikatu egin behar da zergatik ez den komeni irizpide horiek sartzeari, espedienteari erantsiko zaion txosten arrazoitu batean.

Bigarren artikulua

«Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzetarako prozeduratan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida» deritzon dokumentua onestea (eranskinean jasota dago).



AZKEN XEDAPENAK

Lehenengo azken xedapena. — *Eskumenak eskuordetzea*

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari edo hark eskuordetutako pertsonari ahalmena ematea dekretu hau garatzeko behar adina xedapen eman ditzan.

Bigarrena azken xedapena. — *Indarrean jartzea*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko otsailaren 27an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ



ERANSKINA

«BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN DIRU-LAGUNTZETARAKO PROZEDURETAN KLAUSULA SOZIALAK, INGURUMENEOAK ETA BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEI BURUZKOAK SARTZEKO GIDA»**1. Sarrera**

Gida honen xedea da informazioa ematea, diru-laguntza publikoetarako prozesuetan genero-ikuspegia, klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko.

Horretarako, irizpide sozialak, ingurumenekoak, beste politika publiko batzuei buruzkoak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arlokoak sartzeko hainbat aukera azalduko dira, guztiak ere, Bizkaiko Foru Aldundiak ematen dituen diru-laguntzen arloan aplikatu ahal izateko.

Diru-laguntza publikoei buruzko legeriak hainbat erreferentzia egiten dizkio diru-laguntza publikoen adjudikazio- eta betearazpen-prozedurako faseetan irizpide sozialak sartzeari.

Halaber, hainbat arautan berariaz egiten zaio erreferentzia gai sozialak sartzeari, besteak beste, desgaitasuna, ingurumena, irisgarritasuna, gizarteratzea eta laneratzea, eta erantzukizun soziala.

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren arloan, zenbait erreferentzia interesgarri egiten dira, bai arauetan, bai praktikan, diru-laguntzetarako prozesuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren irizpidea sartzeari buruzkoak; eta gida honetan jasotzen da eduki hori.

Zentzu horretan, dokumentu honetan proposatzen da diru-laguntza publikoetarako prozesuetan emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna sustatzeko zenbait aspektu sartzea.

Planteamendu hori, diru-laguntza publikoen adjudikazio-prozesuko oinarritzko printzipioak erabat babestuz egiten da (tratu-berdintasuna, lehia askea eta diskriminaziorik eza), eta indarrean dagoen araudiarekin bat, irizpide sozialak sartzea berariaz berresten baita araudi horretan.

2. Hartzaileak

Gida honen helburua da diru-laguntzen oinarri arautzaileak idazteko ardura duten teknikariei laguntza ematea, oinarri horietan genero-ikuspegia, klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartu ditzaten.

Gainera, kargu publikoei eta erantzukizuna duten karguei ere zuzenduta dago, beren eskumeneko eremuetan irizpide horiek aztertu eta planifikatu ditzaten, eta ezartzeko prozesua zuzendu dezaten.

3. Arauetako aipamenak

Gida prestatzean, lege-araudi espezifiko legez, hemen xedatutakoa hartu da kontuan:

- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen diru laguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duena.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa. Honen bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako Berdintasunekoak.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.



4. **Gidaren xedea**

Dokumentu honetan, hainbat formula aztertzen dira, diru-laguntza publikoen oinarri arautzaileetan eta deialdietan genero-irizpideak, klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko, eta horiek aplikatzeko proposamenak egiten dira klausuletan.

Hala ere, gidaren helburua ez da hainbeste diru-laguntza zehatz baterako baliatzea, jarduketa orokor eta irekia izan nahi du. Arlo guztietako diru-laguntzetan aplikatu nahi da: lankidetzak, gazteria, berrikuntza, mugikortasuna, enplegua, osasuna, kultura, hezkuntza, migrazioa, nekazaritza eta abeltzaintza, sariak eta bekak, hirigintza eta mugikortasuna, prestakuntza, kirola, etab.

— Genero ikuspegiari dagokionez, helburua da diru-laguntza publikoak arautzen dituzten arau espezifikoek egitura-aldaketak sortzea, berdintasunaren arloan eraginkortasunez aurrera egiteko. Ildo horretan, sistematikoki jarduteko eredu bat proposatzen da:

- Foru sailek ematen dituzten diru-laguntza publikoetan genero-ikuspegia zeharka sartzeko duena.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako aspektuak jasotzen dituenak: besteak beste, hizkuntza ez sexista, onuradun kopuru paritarioa, sexuaren arabera bereizitako datuak, kontziliaziorako neurriak, eta emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, eta beharrezkoen azterketa.
- Egokitutako metodologia bat proposatzen duena, honako hauek konbinatuta: ebaluazio-irizpideak; nahitaezko baldintzak; jarduteko gomendioak; diru-laguntzaren xedean edo edukian genero-ikuspegia integratzea; aurrekontua sexuaren arabera banatzea; bai eta diru-laguntzak ebazten dituzten organoek —emakumeen ordezkariak handia dutenek— emakume eta gizon kopuru paritarioa izatea ere. Foru sailek ematen dituzten diru-laguntza publikoetan genero-ikuspegia zeharka sartzeko duena.

— Klausula sozialen, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuen kasuan, lortu nahi da diru-laguntza publikoak arautzen dituzten arau espezifikoek zenbait jarraibide betetzea sustatzea; eta, jarraibide horiei esker, gizartea bidezkoagoa eta errespetu handiagoa izango da, eta bizikidetzarako ingurune osasungarri eta iraunkoragoa sortuko da. Horretarako, sistematikoki jarduteko eredu bat proposatzen da, besteak beste, helburu hauetarako:

- Mota guztietako desberdintasunak ezabatzen laguntzen duten edukiak jasotzeko.
- Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua baldintza duinetan sustatzeko.
- Ingurumenaren aldeko praktikak egitera behartzeko, edo praktika horiek saritu edo sustatzeko.

Era berean, 5/2005 Foru Arauaren 2. artikuluan jasotzen den diru-laguntzaren kontzeptua gogorarazi behar da:

1. Foru arau honen 3. artikuluan aipaturiko subjektuetariko edozeinek pertsona pribatu zein publikoaren alde dirua baliatzea hartuko da diru-laguntzatzat, foru arau honi dagokionez, baldin eta betekizun hauek betetzen badira:
 - a) Diru-laguntza onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe eman behar da.
 - b) Diru ematea gauzatzeko, nahitaezko baldintza izango da helburu jakin bat bete, proiektu bat burutu, jarduera bat egin, jokaera berezi bat hartu, edo inguruabar jakin bat gertatzea, eta baldintza hori beteta edo betetzeko bidean egongo da. Horrez gain, ezartzen diren betebeharrak material eta formalak bete behar ditu onuradunak.
 - c) Herri onurako edo interes sozialeko jarduera bat edo helburu publikoren bat sustatzeko jarduera bat izan behar du xedetzat finantzaturiko proiektu, ekintza, jokaera edo egoerak.

Adierazitako guztia dela-eta, nabarmentzekoa da, zenbaitetan, genero-ikuspegia eta klausula sozialekin, ingurumenekoekin eta beste politika publiko batzuei dagozkien-



kin lotutako aspektuak izaten direla diru-laguntzaren xedea bera, eta hori kontuan hartu beharrekoa da klausuletan ezartzerakoan.

5. Gidaren egitura

Gidaren egitura genero-ikuspegia, klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko aukera desberdinetan ardatzen da, diru-laguntzak izapidetzeko prozeduraren faseen arabera:

— *Prestakuntza-fasea*

- Onuradun-izaera.
- Onuradun izateko debekua.
- Instrukzio-organoaren osaera.

— *Diru-laguntzak emateko fasea*

- Diru-laguntzak emateko irizpideak

— *Betearazpen-fasea*

- Onuradunaren betebeharrak

Era berean, gidaren ezaugarri espezifikoak direla-eta, haren ataletan bereizketa egiten da genero-klausulen eta gainerako klausulen artean, diru-laguntza emateko prozeduraren faseetan klausulok aplikatzea errazteko.

6. Prestakuntza-fasea

6.a) Onuradun-izaera

6.a.1) *Kontzeptua eta azterketa*

Fase honetan, berariazko estrategia edo jarduketa bat ezartzeko aukera planteatzen da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren, aspektu sozialen, ingurumenekoen edo beste politika publiko batzuen arloan ibilbide edo jardunbide egiaztatua duten erakunde aldekoa, erakunde horiek soilik izan dezaten diru-laguntza jasotzeko aukera.

Bestalde, 5/2005 Foru Arauaren 7. artikulua ezartzen duenaren arabera (Printzipio orokorrak) kontuan hartu behar da diru-laguntza publikoak printzipio hauen arabera kudeatuko direla: publikotasuna, gardentasuna, lehiakortasuna, objektibotasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza eta kontrola. Eta horrek, jakina, esan nahi du ezin dela sartu printzipio orokor horiek betetzen ez dituen baldintzarik.

Hala ere, oinarri arautzaileetan diru-laguntza jasotzeko baldintza gisa sar daitezke emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin eta zenbait jarraibide sozialekin, ingurumenekoekin eta beste politika publiko batzuei buruzkoekin lotutako aspektuak. Betiere, diru-laguntzaren xede den jardueran sartzen badira, edo diru-laguntzaren oinarri diren xedeari, edukiari eta jardueri dagokionez egokiak, objektiboak eta koherenteak badira.

Adierazitako guztia aplikatu beharreko araudian oinarritzen da, eta han zehazten dira pertsona fisiko edo juridiko onuradun izateko baldintzak:

MAIATZAREN 31KO 5/2005 FORU ARAUA, FORU ADMINISTRAZIOAK EMATEN DITUEN DIRU-LAGUNTZEN ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA ARAUTZEN DUENA

10. artikulua. — *Onuradunak*

1. Diru-laguntza emateko arrazoi izen den jarduera egin behar duen pertsona hartuko da diru-laguntzaren onuraduntzat, edota diru-laguntza ematea bidezko egiten duen egoeran dagoena.

12. artikulua. — *Onuraduna edo erakunde laguntzailea izateko betekizunak*

1. Diru-laguntza emateko arrazoi izen den egoeran dauden pertsona edo entitateak, edota oinarri-arauetan eta deialdian aurreikusitako inguruabarrak biltzen dituztenak izan daitezke pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak.



Beraz, onuradun izateko, oinarri arautzaileetan ezartzen den funtsezko elementue-tako bat da ezarritako baldintzak zehaztea. Eta ez dago eragozpen juridikorik baldintza gisa ibilbide, esperientzia, giza talde edo prestakuntza espezifikoa bat egiaztatu beharra ezartzeko arlo hauetan: generoa, arlo soziala, ingurumena, eta beste politika publiko batzuei buruzkoa. Berme juridikoa areagotzeko, honako hau gomendatzen da:

- Berariaz adieraztea diruz laguntzekoa den jardueraren xedean eta edukian.
- Oinarri arautzaileetan zehaztea onuradun izateko zein baldintza zehatz bete behar diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta jarraibide sozialen, ingurumenekoen eta beste politika publiko batzuen arloan.
- Eskatzen diren esperientzia eta eskumenak bat etortzea diru-laguntzaren xedea-rekin eta helburuarekin.

Oinarri arautzaileetan eta deialdian aurreikusitako baldintzak eta inguruabarrak bete-tzen direnean, ezarri daiteke diru-laguntzaren onuradun bakarrak izango direla adierazi-tako arloetan gaitasun egiaztatua duten pertsona fisiko eta juridikoak.

Antzeko egoerak har daitezke oinarri gisa. Adibidez, ekonomia sozialaren arloko diru-laguntzetan, eska daiteke legez halakotzat eraturako kooperatibak edo lan-sozietateak izatea; edo, ingurumen-sentsibilizazioko ekintzetan, zehaztu daiteke xede hori jasota izatea sortze-eskirituran edo estatutuetan. Era berean, bidezkoa da genero-ikuspegiaren baldintza eskatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako zenbait diru-laguntza emateko.

6.a.2) Klausulak aplikatzeko proposamenak

GENERO-IKUSPEGIA

Kasu zehatzetan, diru-laguntzen edukian edo xedean genero-ikuspegia jasotzen bada, diru-laguntzaren deialdira aurkezten diren pertsona edo erakundeek bete behar dituzten baldintzen artean sartuko da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko ibilbidea eta jarduerak izatea. Horretarako, aspektu hauek sartu daitezke klausuletan, besteak beste:

- Erakundeak eta giza taldeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arlo espezifikoa duten esperientzia: azken hiru urteetan egindako jarduketara eta lan garrantzitsuenak adieraziko dira, bai eta langileek generoaren arloan duten titulazioa, prestakuntza eta prestakuntza espezifikoa ere.
- Deialdian parte hartzeko bete beharreko baldintzak; giza taldeak generoaren arloan duen gaitasuna egiaztatzea, eta adieraztea zein teknikarik edo unitate teknikorik (enpresakoak edo kanpokoak) parte hartuko duen diru-laguntza gauzatzeko prozesuan, arlo horretan duten titulazioa eta esperientzia adierazita.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea helburu gisa agertzea erakundearen sortze-eskirituran edo estatutuetan.
- Berdintasunaren arloko enpresa-egiaztagiri edo -bereizgarri bat izatea, edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean entitate laguntzailea dela egiaztatzen duena, edo antzeko agiri ofizialen bat.
- Onuradun izateko, egiaztatzea azken hiru urteetan erakundearen erabiltzaile edo onuradun izan diren emakumeen kopurua gutxienez % 50ekoa izan dela.
- Erakunde onuradun izateko, egiaztatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan bat diseinatu eta aplikatu izana, edo familia- eta lan-bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurriak hartu izana.

KLAUSULA SOZIALAK, INGURUMENEOAK ETA BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEI BURUZKOAK

Halaber, zenbait jarraibide sozialen, ingurumenekoen edo beste politika publikoei buruzkoen sustapenerako diru-laguntzen deialdietan, honako aspektu hauek sartu ahal izango dira diru-laguntza jasotzeko baldintzen artean:

- Egiaztatzea entitatearen plantillan desgaitasunen bat duten pertsona kopuru zehatza kontratatuta izatea.



- Egiaztatzea entitatearen plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen kopuru zehatza kontratatuta izatea.
- Laneratze-enpresa gisa sailkatuta egotea, abenduaren 13ko 44/2007 Legean ezarritakoarekin bat.
- Ingurumen-kalitatearen ziurtagiri bat izatea, ziurtagiri ofizialak ematen dituen organismo batek emana.
- Diru-laguntzaren erakunde onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera egiten duten pertsoneri aplikatzekoa den hitzarmen kolektibo bat izatea.
- Erakundeak laneko segurtasun eta higienearen arloan aplikatzekoak zaizkion ziurtagiriak izatea.
- Bidezko merkataritza-erakunde gisa sailkatuta egotea
- «Arauk betetzeari buruzko» edo «compliance» betetze penalari buruzko programa bat izatea

6.b) Onuradun izateko debekua**6.b.1) Kontzeptua eta azterketa**

Kontratazio publikoaren arloan bezala, lehenengo eta behin planteatu behar da posible den diru-laguntza publikoetatik kanpo uztea edo haiek jasotzea debekatzea pertsona fisiko edo juridiko hauei, kasu hauetan: beren jarduketa eta xedea diskriminatzaileak edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkakoak direnean, bai eta zenbait jarraibide sozialen, ingurumenekoen edo beste politika publiko batzuen aurkakoak direnean ere. Horri dagokionez, lege-aipamen hauek egiten dira:

FORU ADMINISTRAZIOAK EMATEN DITUEN DIRU-LAGUNTZEN ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA ARAUTZEN DUEN MAIATZAREN 31KO 5/2005 FORU ARAUAREN 12. ARTIKULUA

2. Ondoko egoeratariko edozeinetan dauden pertsona edo entitateak ezin izan daitezke foru arau honetan araurikoko diru-laguntzen onuradunak edo erakunde laguntzaileak, diru-laguntzaren izaeragatik beragatik diru-laguntza mota bakoitzaren oinarri-arauetan kasu hori salbuetsi ezik (...).

- a) Epai irmoaren bidezko kondena baten ondorioz, diru-laguntza edo bestelako laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu izana.
- b) Konkurtsoaren adierazpena eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabearen adierazpena jaso izana, konkurtsoaren adierazpena jaso izana, salbu hitzarmen baten eraginkortasunez lortu bada, esku-hartze judizialaren menpean egotea edo Lege Konkurtsoaren arabera desgaituak gertatu izana, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntza-epea artean amaitu barik dagoela.
- c) Direlako pertsona edo entitateak errudunak direla adierazi deneko auziren batengatik, Administrazioarekin sinaturiko edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana.
- d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak bateraezintasun kasuren batean egotea, gai horiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.
- e) Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak beteta ez izatea. Aurreko lerroaldean xedaturikoa ez zaie aplikatuko Bizkaiko Lurralde Historikoaren gizarte zerbitzuen sistemak babesturiko kolektiboetako pertsona fisikoei zuzendutako diru-laguntzei.
- f) Zerga-egoitza arau bidez zerga-paradisutzat harturiko herrialde edo lurralde batean izatea.
- g) Diru-laguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharrak ordaintzeari dagokionez, egunean ez egotea.



- h) Sexuarengatik edonolako diskriminaziorik sortzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso izana, zehapenean ezarritako epean zehar.
- i) Ebazpen irmoaren bidezko zehapen baten ondorioz, foru arau honen edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren arabera diru-laguntzak jasotzeko aukera galdu izana.
- j) Foru arau honen 10. artikuluko 3. zenbakiko bigarren lerrokadan aurreikusitako elkarteak ezin izan daitezke onuradunak, baldin eta haien kideetarik edozein goiko debeku egoeretariko edozeinetan badago.
- k) Diru-laguntzak jasotzeko debekuek eragina izango dute, halaber, horiek jaso dituzten enpresen jarraipentzat jo daitezkeen enpreetan, enpresa horietako pertsonengatik edo beste egoera batzuenatik hala sumatzen denean, edo horietatik eratorri direla uste denean, aldatzeagatik, bat egiteagatik edo ondorengo izateagatik.

3. Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5 eta 6. zenbakietan aurreikusitako debeku arrazoietako baten bat biltzen duten elkarteak ezin izango dira inola ere izan foru arau honetan arauturiko diru-laguntzen onuradunak edo erakunde laguntzaileak.

4. 1/2002 Lege Organikoaren 30.4. artikuluan xedaturikoa aplikatuz, ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik elkarte baten inskripzio prozedura administratiboa etenez gero, delako elkarte hori ere ezin izango da onuraduna edo erakunde laguntzailea izan, harik eta ebazpen judizial irmo baten ondorioz dagokion erregistroan inskribatzeko aukera ematen zaion arte.

ILDO HORRETAN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN MARTXOAREN 23KO 34/2010 FORU DEKRETUAN DEBEKU HORIEK APLIKATZEKO SISTEMA EZARTZEN DA:

22. artikulua.— *Onuradun edo erakunde laguntzaile izaera lortzeko debekua ezagutzea*

Onuradun edo erakunde laguntzaile izaera lortzeko debekuak Diru-laguntzen Foru Arauaren 12. artikuluko 2. paragrafoaren a), b), d), e), f), g) eta h) idatz-zatietan zehazten dira, eta debeku horiek zuzenean ezagutuko dira, eta indarrean egongo dira, harik eta kasu bakoitzean debekuok sorrazteko inguruabarrek dirauten bitartean edo epai edo ebazpen irmo bidez xedatzen den epean zehar.

Elkarteen irudi espezifikoari dagokionez, honako hau ezartzen da Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluan:

5. Botere publikoek ez diete inolako laguntza-motarik emango onartze-prozesuan edo jardunbidean bereizkeria egiten duten elkarteei, jaiotzarengatik, arrazarengatik, sexuarengatik, erlijioarengatik, iritziarengatik nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal edo sozialengatik.

Begien bistakoa da ezin direla onuradun izan sexuaren ziozko bereizkeria egiten duten elkarteak; hala ere, aspektu horrek kanpoan uzten ditu beste pertsona fisiko edo juridiko batzuk, emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioa sortzen duten egoeretan beste debeku batzuk ere badituztenak.

Hala ere, kontratazio publikoaren arloan gertatzen den bezala, arazoa da entitate horiek aurretiaz administrazio-zehapen edo zehapen penal irmoak jaso behar izan dituztela. Eta, diru-laguntza arautu eta ematen duen organoak edo administrazio publikoak ez duenez horretarako eskumenik, aplikazio hori konplexua eta salbuespenezkoa da.



Horren ondorioz, eraginkorragoa da zuzenean aplikatu daitekeen beste formularen bat bilatzea, eta horretarako jotzen dugu lege-oinarri honetara:

MAIATZAREN 31KO 5/2005 FORU ARAUA, FORU ADMINISTRAZIOAK EMATEN DITUEN DIRU-LAGUNTZEN ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA ARAUTZEN DUENA

12. artikulua. — Onuraduna edo erakunde laguntzailea izateko betekizunak

1. Diru-laguntza emateko arrazoi den egoeran dauden pertsona edo entitateak, edota oinarri-arauetan eta deialdian aurreikusitako inguruabarrak biltzen dituztenak izan daitezke pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak.

Hori dela-eta, nahikoa izango litzateke diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako hauek ez dituztela betetzen onuradun izateko baldintzak: pertsona fisiko edo juridikoak edo erakundeak, baldin eta beren xedeak, onartze-sistemak, jardunbideak, ibilbideak edo jarduketak argi eta garbi emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioa sortzen badu, edo berdintasun-printzipioaren aurka egiten badu. Hau da, diskriminaziorik eza egiaztatzeak diru-laguntzak ematea legezko dezala.

Arazoa frogaren karga da; izan ere, pertsona fisiko edo juridiko bati onuradun izatea ezesteko, diskriminazioa sortzen duen baldintza hori egiaztatu behar da. Kontrako zentzuan, posible litzateke diru-laguntzatik kanpo uzten den entitate batek diru-laguntzaren prozesua aurkaratzea. Arazo hori konpontzeko eta segurtasun juridikoa bermatzeko, gomendagarria da aukera hori kasu zehatzetan eta aurrez ezarrietan bakarrik erabiltzea; adibidez, kide, erabiltzaile edo onuradunen artean emakumerik onartzen ez duten entitateen kasuan. Kasu horretan, frogabide objektiboa eta nahikoa izango lirateke merkataritza-erregistroan zigitatutako legezko estatutuak, edo elkarte edo fundazioen eskritura eta estatutuak.

Hain argiak ez diren kasuetan, beharrezkoa izango da diru-laguntzaren deialdia egiten duen eta diru-laguntza ematen duen organoak berak modu sinesgarrian frogatzea diskriminazioa sortzen duen jarduketa.

6.b.2) Klausulak aplikatzeko proposamenak

Genero-ikuspegiaren arloan aplikatu daitekeen baldintza bat sartuko da diru-laguntza publikoen oinarri arautzaileetan. Baldintza horren arabera, ezin izango dute diru-laguntzarik jaso pertsona fisikoek edo juridikoek, baldin eta beren xedeak, onartzeko edo sartzeko sistemak, jardunbideak, ibilbideak edo jarduketak emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioa sortzen badu, edo berdintasun-printzipioaren aurka egiten badu.

Eta, kasu zehatzetan, klausula hauek ere sartu ahal izango dira:

- Ezin izango dute diru-laguntza hau jaso pertsona fisikoek edo juridikoek, baldin eta beren xedeak, onartze-sistemak, jardunbideak, ibilbideak edo jarduketak emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioa sortzen badu.
- Ezin izango dute diru-laguntza hau jaso erakundeek, baldin eta beren sarbide-arauek edo jardunbideak, baliabideak eta instalazioak erabiltzeko arauak, izatez edo eskubidez, sexu-diskriminazioa edo baldintza edo inguruabar pertsonalak oinarri hartzen dituen diskriminazioa sortzen badute.
- Ezin izango dute diru-laguntza publikorik jaso pertsona fisikoek edo juridikoek, baldin eta arau-hauste oso larria dela-eta zehapenik jaso badute, edo administrazio-ebazpen edo epai judizial irmo bidez kondenatuak izan badira, arrazoi hauengatik: Langileen Estatutuan edo hitzarmen kolektiboan ezarritako tratua eta aukera-berdintasunaren betebeharra ez betetzeagatik; sexua dela-eta diskriminazioa egiteagatik; lanean sexu-jazarpena egiteagatik; edo, hartarako betebeharra egonik, Berdintasun Planik ez egiteagatik, Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako Berdintasuneko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera.

**6.c) Instrukzio-organoaren osaera****6.c.1) Kontzeptua eta azterketa**

Langileen aukeraketarako epaimahaien osaeran eta diru-laguntzak ebatzen dituzten organo instrukzio-egileen osaeran aspektu hau hartu behar da kontuan: epaimahai eta organo horiek emakumeen eta gizonen osaera paritarioa -edo, gutxienez, orekatua- izatea.

Aspektu horri egiten dio erreferentzia:

EUSKO LEGEBILTZARRAK ONARTUTAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18ko 4/2005 LEGEAK:

20. artikulua. — Emakumeen eta gizonen arteko aldeak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak

5. Egoki ikusten diren beste neurri batzuk ere hartu ahal diren arren, administrazioak sustatutako edo diruz lagundutako edozein sari-mota emateko sortzen diren epaimahaiak erregulatuko dituzten arauak, eta kultura- edota arte-funtsak eskuratzeko gaitutako antzeko organoak erregulatzen dituztenek, klausulabatizangodute, hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango dela bermatzeko

Diru-laguntza publikoetan, izendatzen den organo instrukzio-egileari dagokio, besteak beste, funtzio hauek betetzea: onartze-prozesua egitea, proposamenak ebaluatzea, edo dokumentazio osagarria eskatzea. Honako hau xedatzen da Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan:

22. artikulua. — Instrukzioa

1. Deialdian zehaztuko da zein organori dagokion dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioa egitea.

2. Instrukzioa egiteko organo eskudunak bere kabuz egingo ditu ebazpen proposamena emateko oinarri izan behar duten datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkotzat hartzen dituen ekintza guztiak.

3. Instrukzioaren baitan ekintza hauek egongo dira:

a) Organo eskudunak beharrezkotzat hartzen dituen txostenak edota diru-laguntzari buruzko arauetan eskatutakoak eskatzea.

b) Diru-laguntzari buruzko oinarri-arauetan aurreikusita badago, aurretiazko ebaluazio fase bat ezarri ahal izango da, dirulaguntzaren pertsona onuraduna izateko baldintzak betetzen ote diren egiaztatze.

c) Eskabide edo eskaeren ebaluazioa, diru-laguntzari buruzko arau berariazkoan edo, kasuan kasu, deialdian ezarritako balorazio-irizpide, -modu eta -lehentasunen arabera egina.

4. Behin eskabideak ebaluatuz gero, egindako ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena eman behar du instrukzio az arduratzen den organoak.

Oinarri-arauetan organo ebaluatzaileak aurreikusiz gero, bera izango da aurreko lerroaldean aurreikusitako txostena emateko organo eskuduna. Instrukzioa egiten duen organoak txostena eta ebazpen proposamena aurkeztuko dizkio organo ebazleari. Instrukzioa egiten duen organoak txostena eta ebazpen proposamena aurkeztuko dizkio organo ebazleari.

Oinarri-arauetan aurreikusita badago, instrukzioa egiten duen organoak, ebazpen proposamena egin baino lehen, behin-behineko ebazpen proposamena egin ahal izango du, behar bezala arrazoitua izango dena. Behin-behineko ebazpen proposamena pertsona interesdunei jakinarazi



behar zaie, deialdian edo oinarrietan beretan ezarritako moduan, eta 10 eguneko epea emango da alegazioak azaltzeko.

Entzunaldiaren izapidea alde batera utzi ahal izango da, baldin eta prozeduran ez badago edo kontuan hartzen ez bada beste inolako egitaterik edo interesdunek azaldutakoak ez beste alegazio edo frogarik. Kasu horretan, azaldutako ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

Interesdunek azaldutako alegazioak aztertu egingo dira, halakorik badago, eta gero behin betiko ebazpen proposamena emango da. Ebazpen proposamenean, diru- laguntzaren onuradun izateko proposatzen den edo proposatzen diren eskatzailea edo eskatzaileak eta diru-laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko dira, ebaluazioa eta bera egiteko irizpideak zehazturik.

5. Oinarri-arauek jakinarazi beharra ezarri ezik, behin betiko ebazpen proposamena ez zaie jakinaraziko instrukzio fasean pertsona onuradunak izateko proposatu diren interesdunei. Organo eskudunak behin betiko ebazpena jakinarazi ondoren, 10 eguneko epea egongo da ebazpena onartzeko, eta epe hori berenberegiko adierazpenik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

6. Behin-behineko eta behin betiko ebazpen proposamenean —oinarri-arauetan aurreikusita daudenean— ez dute proposaturiko pertsona onuradunaren aldeko inolako eskubiderik sortzen Administrazioari begira, harik eta diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazi arte.

Behin betiko ebazpen proposamena emandakoan, organo ebazleari aurkeztuko zaio.

Beraz, prozeduraren fase horretan, organo instrukzio-egilearen osaeran emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak orekatua egon behar da, are gehiago, diru-laguntzaren xedean edo edukian nagusiki edo zeharka sartuta badago genero-ikuspegia. Ez da gehiago sakondu behar gai horretan, eta oinarri arautzaileetan honako hau sartzea proposatzen da:

«Diru-laguntza publikoak emateko batzorde ebaluatzailearen osaeran, gaitasun, gaikuntza eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak orekatua egotea bermatuko da. Horretarako, ahal den neurrian, ahalegina egingo da batzorde horretan emakume eta gizonak egon daitezen, eta orekatutzat joko da, kasu guztietan proportzioa ez denean % 60-% 40 baino handiagoa ez txikiagoa.

7. Diru-laguntzak emateko fasea

7.a) Diru-laguntzak emateko irizpideak

7.a.1) Kontzeptua eta azterketa

Prozeduraren fase horretan, Administrazio Publikoak, ezartzen den organo instrukzio-egilearen bitartez, aurkeztutako proposamenak alderatu eta ebaluatu behar ditu, eta, horrela, erakunde onuraduna zein izango diren zehaztuko da. Beraz, proposatu daiteke emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzea diru-laguntzak emateko irizpide objektiboen artean.

Hona hemen araudirik garrantzitsuena:

MAIATZAREN 31KO 5/2005 FORU ARAUA, FORU ADMINISTRAZIOAK EMATEN DITUEN DIRU-LAGUNTZEN ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA ARAUTZEN DUENA

16. artikulua. — Diru-laguntzak emateko oinarri-arauek

2. Diru-laguntzak emateko oinarri-arauek, gutxienez, ondoko alderdi hauek zehaztuko dituzte:

- e) Diru-laguntza emateko irizpide objektiboak eta, kasuan kasu, irizpideon haztapena.



*3/2007 LEGE ORGANIKOA, MARTXOAREN 22KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO
BENETAKO BERDINTASUNEKOA*

35. artikulua. — *Diru-laguntza publikoak*

Administrazio publikoek, euren eskumenen esparruan diru-laguntzen plan estrategikoak egiten dituztenean, esparruak zehaztuko dituzte, non, emakumeen eta gizonen artean aukera-desberdintasuna izateagatik, aukera ematen den, kasuan kasuko diru-laguntzen oinarri arauemailetara bildu ahal izateko berdintasuna eragingarritasunez lortzeko jardueren balorazioa, diru-laguntzak eskatzen dituzten erakundeen artean.

Ondore horietarako baloratu ahal izango dira, besteak beste, norberaren, laneko eta familiako bizitza uztartzeko neurriak, enpresaren gizar-te-erantzukizunaren neurriak, edo berdintasun-arloan lege honetako IV. tituluko IV. kapituluan araututako enpresa-bereizgarria lortu izana.

Beraz, oinarrietan edo arauetan, laguntzak edo diru-laguntzak adjudikatu edo emateko irizpide objektiboen artean, sartu behar dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko erreferentziak, bai eta klausula sozialei, ingurumenekoei eta beste politika batzuei buruzkoak ere. Hurrengo atalean egiten dira horretarako proposamenak.

7.a.2) Klausulak aplikatzeko proposamenak

GENERO-IKUSPEGIA

Adierazitakoa kontuan hartuta, erabaki behar da nola sartu teknikoki diru-laguntzak emateko oinarri arautzailetan genero-ikuspegia, irizpide objektibo gisa, eta haren ponderazioa. Izan ere, horren arabera hautatuko dira erakunde onuradunak, beren lehentasun-hurrenkera, eta jasoko dituzten zenbatekoak.

Beraz, proposamenak ebaluatu eta diru-laguntza publikoak zehazteko irizpide objektiboen artean sartu behar da, nahitaez, aurkezten den proiektuan edo jardueran genero-ikuspegia txertatzea. Aspektu horri ponderazio bat emango zaio baremo osoan. Oinarri arautzailetan irizpide hauetakoren bat —edo antzekoren bat— sartu daiteke:

- Diruz lagundutako jardueraren onuradun diren emakumeen kopurua eta portzentajea -onuradun guztiak kontuan hartuta-.
- Pertsona edo erakunde onuradunak enplegatutako emakumeen kopurua eta portzentajea, zehazki, erantzukizuneko lanpostuetan daudenak.
- Erakunde onuradunak zuzendaritza-lanpostuetan dituen emakumeen kopurua eta portzentajea.
- Pertsona edo erakunde eskatzaileak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak edo jarduketak garatzen eginiko ibilbidea, adibidez:
 - Erakundeak eta giza taldeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arlo espezifikoan duten esperientzia: azken hiru urteetan egindako jarduketa eta lan garrantzitsuenak adieraziko dira
 - Langileek generoaren arloan dituzten tituluak, prestakuntza eta esperientzia espezifikoak.
 - Berdintasunaren arloko enpresa-egiaztagiri edo -bereizgarri bat izatea, edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean entitate laguntzailea dela egiaztatzen duena, edo antzeko agiri ofizialen bat.
 - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan bat diseinatu eta aplikatu izana
 - Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak izatea.
- Berdintasunaren arloko sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak egitea.
- Erakunde onuradunak emakumeen pobrezia-aren aurkako ekintza espezifikoak egitea.
- Kontziliaziorako neurriak izatea.
- Dokumentazioan eta materialetan hizkuntza ez sexista erabiltzea.



- Dokumentazioan eta materialetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-balioak, rol aniztasuna eta erantzunkidetasuna jasotzea.
- Jardueraren ebaluazioan genero-adierazleak erabiltzea.

Orokorrean sartu daitezkeen ebaluazio-irizpide horiez gainera, irizpide zehatzagoak ere garatu daitezke, diru-laguntzaren edo jarduera-sektorearen arabera. Betiere, kontuan harturik diru-laguntzen deialdiak gai zehatz eta ohikoei buruzkoak izaten direla. Helburu horretarako, diru-laguntzaren xede den sektorearen arabera, klausula hauek sartu daitezke:

– *Enpleguarekin lotutako diru-laguntzak:*

- Emakume ekintzaileei zuzendutako jarduerak.
- Enplegua sustatzeko ekintzetan genero-ikuspegia sartzea.
- Emakumeei laguntza soziala emateko eta gaitasun, orientazio, prestakuntza eta bitartekaritzarako ibilbide pertsonalizatuak eskaintzeko neurriak ezartzea.

– *Prestakuntza-programak:*

- Moduluetan eta prestakuntzaren edukietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa eta genero-ikuspegia sartzea.
- Prestakuntza-ekintzan parte hartzen duten pertsonentzako kontziliazio-neurriak izatea.
- Parte-hartzaileen hautaketa-sisteman genero-ikuspegia kontuan hartzea.

– *Kirol-jarduerak:*

- Emakumeen parte-hartzea sustatzeko aurrez ikusitako neurriak.
- Parte hartzen duen emakume kopurua, parte-hartzaile guztiak kontuan hartuta.
- Entitatean emakumezkoen eta gizonezkoen taldeak egotea.

– *Osasuna eta prebentzioa:*

- Proposamenen emakumeen eta gizonen espezifikotasuna eta beren arteko diferentzia biologikoak jasotzea.
- Lan-arriskuen prebentzioaren eta lan-osasunaren arloetan genero-ikuspegia txertatzea, eta arlo horietako edukia sexu bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea.

– *Garapenerako lankidetzak:*

- Emakumeen pobrezia-aren aurkako ekintza espezifikoak.
- Lankidetzaren eta giza-eskubideen programetan genero-ikuspegia eta emakumeen eskubideak sartzea.

– *Elkartegintza:*

- Emakumeen elkarteak eta zuzendaritza-lanpostuetan dauden emakumeak kontuan hartzea.
- Parte hartzen duten entitateen eskritoretan edo sortze-estatutuetan diskriminazioaren aurkako klausulak sartzea.

KLAUSULA SOZIALAK, INGURUMENEOAK ETA BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEI BURUZKOAK

Adierazitakoa kontuan hartuta, erabaki behar da nola sartu, teknikoki, diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileetan jarraibide sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak, irizpide objektibo gisa, bai eta horien ponderazioa ere. Izan ere, horren arabera hautatuko dira erakunde onuradunak, beren lehentasun-hurrenkera, eta jasoko dituzten zenbatekoak. Irizpide guztiak modu homogeneoan ulertzeko moduan idatzi behar dira, onuradunek puntuazioaren kalkulu erreala egiteko aukera izan dezaten.

Beraz, proposamenak ebaluatu eta diru-laguntza publikoak zehazteko irizpide objektiboen artean sartu behar da, nahitaez, aurkezten den proiektuan edo jardueran jarraibide sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak txertatzea. Aspektu horri ponderazio bat emango zaio baremo osoan. Oinarri arautzaileetan irizpide hauetakoren bat —edo antzekoren bat— sartu daiteke:



- Soldatari dagokionez ezarritako baldintzak (enpresa-hitzarmena, Langileen Estatutua...) hobetzea, eta erakunde onuradunak konpromisoa hartzea baldintza horiek diru-laguntzaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatzeko.
- Diruz lagundutako jarduera gauzatuko duten kontratu mugagabedun langileen kopurua edo portzentajea.
- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikulua araberan, diruz lagundutako jarduera gauzatuko duten kontratu mugagabedun langileen kopurua edo portzentajea.
- Ingurumen-kalitatearen ziurtagiri bat izatea, ziurtagiri ofizialak ematen dituen organismo batek emana.
- Euskararen ezagutza-maila jakin bat egiaztatuta duen langileen kopurua edo portzentajea.
- Euskararen erabilera-plan bat izatea.
- «Arauk betetzeari buruzko» edo «compliance» betetze penalari buruzko programa bat izatea

8. Betejarazpen-fasea

8.a) Onuradunaren betebeharrak

8.a.1) Kontzeptua eta azterketa

Azkenik, diru-laguntza publikoei buruzko kapituluan, berdintasunarekin, klausula sozialekin, ingurumenekekin eta beste politika publiko batzuekin lotutako betebeharrak ezartzeko aukera ezartzen da. Betebehar horiek nahitaez bete behar dituzte deialdira aurkeztzen diren entitateek. Kasu horretan, nahitaez bete behar dute entitateek edo pertsona onuradunek oinarri arautzaileetan jasotzen den edozein baldintza (entitateen kasuan) edo betebehar (diruz lagundutako jarduera egiterakoan).

Diru-laguntza publikoei buruzko araudian honako hau xedatzen da:

MAIATZAREN 31KO 5/2005 FORU ARAUA, FORU ADMINISTRAZIOAK EMATEN DITUEN DIRU-LAGUNTZEN ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA ARAUTZEN DUENA

16. artikulua. — Diru-laguntzak emateko oinarri-arauek

2. Diru-laguntzak emateko oinarri-arauek, gutxienez, ondoko alderdi hauek zehaztuko dituzte:

- a) Diru-laguntzaren xedearren definizioa.
- b) Pertsona onuradunek eta, kasuan kasu, foru arau honen 10. artikuluko 2. paragrafoan eta 3. paragrafoaren bigarren lerroaldean jasotako entitateetako kideek diru-laguntzak jasotzeko bete behar dituzten betekizunak, baita eskabideak aurkezteko era eta epea ere.

14. artikulua. — Onuradunen betebeharrak

1. Onuradunak betebehar hauek izango ditu:
 - a) Diru-laguntza emateko arrazoi den helburu, proiektu, jarduera edo jokaera lortu, burutu, egin edo hartzea.
 - b) Diru-laguntza ematen duen organoari edo, kasuan kasu, erakunde laguntzaileari betekizun eta baldintzak betetzen dituela frogatzea, baita diru-laguntza eman eta laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartu diren jarduera eta helburua egin eta lortu dituela ere.
 - c) Organo emaileak edo, kasuan kasu, erakunde laguntzaileak egin beharreko egiaztapen ekintzei men egitea, baita kontrol erakunde eskudunek egin dezaten beste edozein egiaztapen ekintza edo finantza-kontroli ere, eta aipaturiko ekintza horiek gauzatzean eskatzen zaizkien agiri guztiak ematea.

**15. artikulua. — Lankidetzaren hitzarmena**

1. Organo administratibo emailearen eta erakunde laguntzailearen arteko lankidetzaren hitzarmena egingo da, eta bertan erakunde laguntzaileak bere gain harturiko baldintza eta betebeharrak arautuko dira.

Genero-ikuspegiaren arloan, pertsona fisiko edo juridiko onuradunek ezarritako betebeharrak materialak eta formalak bete behar dituzte; ezinbesteko printzipioa izango da emakumeen eta gizonen arteko diskriminaziorik egiten ez duen eta berdintasuneko den jarrera izatea.

Izan ere, horrela, erakunde onuradunek ezin izango dituzte diru-laguntzen funts publikoak erabili emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aurkakoak diren ekintzak egiteko edo mota horretako portaerak izateko.

Baina hori lehen pausoa baino ez da, ia-ia asmo adierazpen bat; eta, deialdian printzipio orokor bat zehazteaz gainera, beste urrats bat ere eman daiteke. Estrategia edo jarduketak jakin batzuk ezarri nahi dira, eta, horretarako, oinarri arautzaileetan eta, hala badagokio, lankidetzaren hitzarmenean, generoaren arloko betebeharrak zehatz eta espezifikoak adierazi behar dira. Betebeharrak horiek erakunde onuradun edo laguntzaileari eskatu ahal zaizkio, eta horiek ez-betetzeak zehapenak ezartzea eta jasotako zenbatekoak itzultzea ekarriko du.

8.a.2) Klausulak aplikatzeko proposamenak**GENERO-IKUSPEGIA**

Kasu zehatzetan, diru-laguntzen oinarri arautzaileen edukian edo xedean genero-ikuspegia jasotzen bada, diru-laguntzaren deialdira aurkeztzen diren pertsona edo erakundeek bete behar dituzten baldintzen artean sartu ahalko dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko klausulak:

— Printzipio orokorrak:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako Berdintasuna Lortzeko 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete behar dira.
- Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna eta diru-laguntza honen xede diren baldintzak eskuratzeko berdintasuna bermatuko da.

— Hizkuntza eta materialak:

- Material, irudi eta dokumentuetan ezin izango da emakumea diskriminatzen duen irudirik erabili, eta material, irudi eta dokumentu horiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-balioak, rol aniztasuna eta erantzunkidetasuna sustatu behar dituzte.
- Testuetan ez da hizkuntza sexistarik erabiliko.

— Genero-berdintasunerako plana:

- 250 pertsonatik gorako plantilla izateagatik genero-berdintasunerako plana izateko betebeharrak duten enpresek egiaztatu egin behar dute plana diseinatu dela eta benetan aplikatzen dela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Legean ezarritakoarekin bat.

— Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak:

- Erakunde onuradunak egiaztatu behar du erabiltzaileen, onuradunen eta/edo diru-laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko kontratatutako pertsonen bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak ezarri dituela. Hori egiaztatzeko, proposamen tekniko bat aurkeztu behar du, honako hauek jasota: aplikatzeko egutegia, jarraipen- eta ebaluazio-neurriak, eta, batez ere, ezarritako neurri zehatzak. Adibidez: adingabeei eta mendetasuna dutenei laguntza emateko zerbitzu-txekeak edo baliabide soziokomunitarioak (arnastekak, ludotekak, gertuko zerbitzuak, etab.); lanaldi-murrizketaren hobekuntzak; eszedentziak, lizentziak edo aitatasun- eta amatasun-baimenak; ordutegi mal-



gutasuna edo zerbitzuen moldaketa edo berresleipena, kontziliazio-beharrizanen arabera; edo antzeko beste batzuk.

— *Beste batzuk:*

- Diru-laguntzaren xede den prestazioaren onuradunen edo erabiltzaileen artean emakumeen portzentaje zehatz bat egotea justifikatzea.
- Zenbait kolektibok diskriminazio gehigarri bat dutela egiaztatzea: esate baterako, portzentaje edo kopuru zehatz bat genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak izatea; edo erantzukizunak dituzten emakumeak; iraupen luzeko langabetuak; 45 urtetik gorakoak; edo etorkinak.
- Onuradunak hautatzeari edo ekintzak sexuen arabera bereizteari buruzko guttia justifikatzea proposamenean.
- Azken memorian generoari buruzko txosten laburtua ere sartzeko eskatzea. Txosten horretan, hartu diren berdintasun-neurriak, horien inpaktua eta eragina azaldu behar dira. Gainera, diruz lagundutako prestazioaren erabiltzaileen edo onuradunen kopuruari dagokionez, sexuaren arabera bereizitako datuak aurkeztu behar dira.
- Egiaztatzea diru-laguntza gauzatu edo betearaztean emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako ekintza espezifikoak egin direla (prestakuntza, aukeraketa, laguntza, sustapena, kontziliazioa, ordezkariak, emakumeen ahaldundutza sustatzea, emakumeen berezitasun sozial, psikologiko edo fisiologikoak kontuan hartzea, etab.).

— *Kontratatu den plantillari dagokionez:*

- Eustatek jarduera-sektore horretarako azken hiruhilekoan zehaztu duena baino emakume-portzentaje handiagoa kontratatzea, emakumeek ordezkariak txikia duten jarduera-sektoreetan.
- Neurriak hartzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko tratuan, lana eskuratzeko aukeretan, langileen sailkapenean, barne-igoeran, lanean irautean, prestakuntzan, kontratua azkentzeko baldintzetan, ordainsarrietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, eta lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan.
- Neurriak hartzea lanean sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzeko.

KLAUSULA SOZIALAK, INGURUMENEOAK ETA BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEI BURUZKOAK

Kasu zehatzetan, diru-laguntzen oinarri arautzaileetan honako klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartu ahal izango dira, pertsona edo erakunde onuradunek bete behar dituzten betebeharren artean:

- Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko duen plantillari indarrean dagoen eta diru-laguntzaren xede den jarduera kokatzen den enpresaren azken hitzarmen kolektiboan (enpresakoa, sektoriala edo lurraldekoa) ezarritako lan-baldintzak ezartzeko betebeharra. Horrek ez du esan nahi ezin denik hobekuntzarik sartu hitzarmen horretan xedatutakoaren gainean.
- Zehazki, aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo horretan jasotako soldata ordaindu beharko du kontratistak, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da izan hura baino txikiagoa.
- Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko duen langileen plantillan kontratu mugagabea duten langileen gutxieneko portzentajea izatea.
- Harremanetarako pertsona bat izendatzeko betebeharra; pertsona horrek lotura izan behar du enpresarekin, eta arlo horretan prestakuntza espezifikoak. Haren zeregina izango da segurtasuneko eta lan-osasuneko baldintzak aplikatzen direla gainbegiratu eta kontrolatzea.
- Lanposturako lanbide-prestakuntzarako jarduerak antolatzeko betebeharra; iraupen zehatz batekoak izan behar dira prestakuntza-jarduerak horiek, kontratua gau-



zatzeari atxikitako pertsonen okupazioa eta egokigarritasuna hobetzeko, baita pertsona horien gaitasunak eta kalifikazioa hobetzeko ere.

- Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko prozesuaren zati bat azpikontratatu behar badu, portzentaje zehatz bat Enplegu Zentro Berezien Erregistroan edo Laneratzeko Enpresen Erregistroan inskribatuta dauden enpresekin azpikontratatu beharko du, betiere kontratuaren ezaugarrien arabera horretarako aukerarik badago.
- Diruz lagundutako jarduera gauzatzekoan, diru-laguntzaren eskaeran ezarritako gutxieneko plantilla mantentzeko betebeharra.
- Bidezko merkataritzako produktuak eskuratzeko betebeharra, betiere diru-laguntzaren ezaugarrien arabera horretarako aukerarik badago.
- «Arauk betetzeari buruzko» edo «compliance» betetze penalari buruzko programa bat izateko betebeharra.